


# Lanaren obsesioa



BEA SALABERRI  
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

**G**ertatzen ari da lanaren gaiarekin zerbait, aldaketa bat, politikoa eta soziala, eta nekez gus-tukoa izan litekeena.

Lana aipatzean, maiz etortzen zait gogora Urepele aldera joatean, bihurtu-gune batean, luzaz ageri izan den idazkia, eta agian han dirauena, baina nolaz aspaldian ez naizen joan ez nezake erran xuxen. Euskal Herrian zehar, paretak ez dira luzaz birjinalak egoten, alta, baze-n han idazki partikular bat. Deusen erdian, bide bazterrean den ttattola zurpailaren alde batean, noizbait esku batek idatzi zuen: LANA. Letra larri, maiuskula eta beltzetan, besterik gabe. Etsipenez idatzi lau letra ziren, beren gordintasun guztian. Oihu biluzia. Lana: ogibide bat, denentzat eta bakoitzaren-tzat, bizitzeko doia eman lezakeena, gazteak hor berean atxikiko lituzkeena, geroari pentsatzen utz gaitzakeena. Lan-ik ez zen garaian idatzia izan zen eta, dudarik gabe, langile batek idatzia.

Lana gure aitama eta arbaso anitzen balio zentrala izan zen, eta anitzetan zaurgarria, belaunaldi gazteak etxetik haizatu eta munduaren beste puntaraino eraman izan zituena, nehork nahi ez zituen lan miserableak egitera, ezinber-tzez, eta gogo eta gorputzak behar baino

gehiago higatu zituena, hemen berean aritu zirenen kasuan ere.

Oraingoan lana ez da bakarrik lanik ez duten pobreen obsesioa.

Izan ere, Macronen ekipoaren obsesioa da, burgesena; hain gutxi lan egin duen Manu konbentzitua baita langabetuen tasa zor zaiela lanera joateko gogorik ez duten alferrei: bere iduriko, lana badelarik karrikaren bestaldean itzulipurdika, oro gara bizi irus eta lanari mus eginez, alokazioen beha ahoa zabalik, ez baitugu amesten berearen gisako *costard* bat.

Urtarrilaz geroztik, *Pôle Emploi* (En-plegu Zentroa) deitzen zen langabetuen bulegoak izen berria du: *France Travail* (Frantzia Lana). Gogogabetzen nauten bi balio uztartzen ditu orain. Eta izen aldaketak izaera berria ere dakar berekin: kotizazio denbora luzatzen eta alokazio eskubideak mendentzen ditu. Lanera denak! Frantziaren *berrarm-tze* ideiarri lotua da hertsiki: orain ahal bezainbat haur egin eta egunak lanean pasa beharko genituzke. BERPIZTU DA IRRI TARTE GUTXI UZTEN ZUEN PÉTAIN-EN IDEALA: patria, lana, familia.

Urruna zitzaidan kontua, anakroni-koa. Horra non iragan hilabeteaz ge-roztik hurbilago sumatzen dudana. Izan ere, Euskal Hirigune Elkargoak igande-

ko lanari buruz eztabaidatu zuen eta erabakia hartu saltegiak irekitzeko ha-mabi igandez urtean. Proposamenak onartezina bazirudien ere, onartu zen. Noski, baldintza batzuekin, hala nola baimen bidez gauzatzea, ez herri guz-tietan eta abar. Alta, aukera gertatuz gero, pixkanaka, erabakiak bere bidea egingen du. Eta horrela, gurearen gisa definitzen dugun instituzioak delibe-ratu du hertsapen ekonomikoak derri-gorturik beharrean den langileak larun-bat-igandeak lanean iragan litzakeela, bazterrean utzirik familia eta lagunak, baita osasun, ongizate eta sozializazio grinak oro, beste zenbaitek erosteko *souvenir* polit bat, pizza izoztu bat eta Coca-cola botila bat, denak ere prezio ikaragarrietan.

Ez dakit zer pentsatuko zuketene gure aitzinekoek, ez eta LANA pintatu zuen eskuaren jabeak horretaz, gaurko goi mailako klaseek duten lanaren obse-sioaz eta langile gisa ditugun aldarri-kapenez lan denboraren murrizketari, lau eguneko asteari eta lan sariei buruz. Distantzia handia da aldarrikapenen eta erabakien artean, distantzia handiagoo lanean baizik nahi ez gaituztenen eta lanetik gogotik ihes egingen genukeen artean. ●